

Donostiako

Herri

Programa

ehbildu

Aurkibidea

I. ERRONKA DEMOKRATIKOA.....	4
1. Gobernantza kooperatiboa	4
2. Memoria historikoa eta elkarbizitza	5
3. Gazteen partaidetza eta espazioak	8
II. BERDINTASUNAREN ERRONKA.....	9
4. Babes sozialerako neurriak	9
4.1. Gizarte eta osasun politikak	10
4.2. Donostia harrera hiria	10
4.3. Irisgarritasuna	12
5. Etxebizitza politikak	13
5.1. Alokairua sustatu eta prezioa mugatze bidean	13
5.2. Etxebizitza berriak eraiki, auzo bizigarriak sortu	13
5.3. Beste zenbait neurri	14
6. Emakumeen Etxea eta politika feministak	15
7. Zerga politika eta udal finantzak	17
8. Udal egitura.....	17
9. Ekialdean bizi eta lan	19
III. ERRONKA EKO-SOZIALA.....	20
10. Energia politikak.....	20
11. Politika klimatikoak.....	20
11.1. Ondare naturala.....	20
11.2. Eraginkortasuna.....	21
11.3. Beste zenbait neurri.....	22
12. Mugikortasuna.....	22
12.1. Oinezkoei eta bizikletei lehentasuna.....	22
12.2. Garraio publikoa indartu.....	23
12.3. Hiriko aparkalekuen berrantolaketa.....	23
12.4. GI-20 saihesbidearen eraldaketa.....	24
13. Ekonomia lokal eta zirkularra.....	26
13.1. Ikerkuntza + Berrikuntza + Garapena.....	26
13.2. Tokiko merkataritza eta lehen sektorea.....	26
13.3. Ekintzailtza soziala.....	28

ehbildu

14. Turismoa gobernatzeko neurriak.....	28
IV. ZAINZAREN ERRONKA.....	30
15. Zaintzaileen zaintza.....	30
V. ERRONKA KULTURALA.....	31
16. Kultur sarea.....	31
16.1.Kultur azpiegiturak.....	31
16.2.Kultur ekimen eta eragileak.....	31
16.3.Jai herrikoiak	32
16.4.Lankidetz.....	32
16.5.Donostiako ondare urbanoa.....	33
17. Kirola.....	33
18. Hezkuntza ekosistema kooperatiboak.....	35
19. Donostia euskaraz.....	36

UDALGINTZAREN ARNASA GARAICO ERRONKA KOLOSALEN AURREAN

I. ERRONKA DEMOKRATIKOA

1. Gobernantza kooperatiboa

Herri partaidetza indartzeko bitartekoak

Herritarrak hiriko arkitektura sozial eta politikoaren diseinuaren protagonista izan daitezen, beharrezkoa da kontzientziario-politika bat, pedagogian gehiago inbertitzea, eta, batez ere, partaidetzaren baliozkotasuna ziurtatzea. Hala bada, demokrazia zuzena egikaritzeko bitartekoak sortzeaz gain, herritarren partaidetzarako bestelako tresna eta mekanismoak ere findu eta garatu behar dira. Horretarako, besteak beste, udal arau eta proiektuak egitean parte hartzea erraztuko dugu eta Partaidetzazko Aurrekontuak indartuko ditugu (“Guztion artean” programa berraztertu eta egokituko dugu).

Demokrazia zuzena, donostiarrak protagonista izan daitezen

2012-2015 urteen artean partaidetza prozesu zabal bat garatu zen Donostiako Udalean hiritar kontsultak egiteko bideak zehazteko. 2015eko apirilaren 30ean, Donostiako Udalaren Osoko Bilkuran talde guztiek aho batez onartu zuten Hiritar Kontsulten Erregelamendua, baina Espainiako Auzitegi Gorenak 2019ko urriaren 23an hartutako erabaki baten ondorioz bertan behera geratu zen.

EH Bilduk demokrazia zuzenaren aldeko defentsa irmoa egiten du, herri galdeketen lotesletasuna errespetatzeko konpromisoa berretsiz: auzitegiek bertan behera utzitako Hiritar Kontsulten Araudiaren defentsa politikoa egingo dugu; herri kontsulten gaur egungo araudiak Alkatezari eta Bozeramaileen Batzordeari esleitzen dien nolabaiteko “beto eskubidea” baliogabetuko dugu; lurralde eremuko kontsultak edo auzo mailako galdeketak egiteko erregelamendua berraztertuko dugu auzo elkarteekin eta eragileekin batera, eta 2019an bertan behera geratu zen zezenketen inguruko galdeketa gauzatzeko formula egokiena adostu eta gauzatu dugu kontsulta honen bultzatzaileekin batera.

Auzo-herriak balio politiko gisa sustatuko ditugu

Auzoa eta herria jardun politikorako oinarrizko unitate gisa ulertzen du EH Bilduk. Auzoa eta herria ezinbesteko markoa da hiri bezala ditugun erronkei (krisi sozio-ekologikoa) erantzun eraginkor eta justua eman nahi dien praxi politikoarentzat. Izan ere, auzoetako harreman-egiturek (hurbiltasuna, konfiantza, elkarrekotasuna) jardueren egokitasuna, irisgarritasuna eta iraunkortasuna errazten dituzte. Hori dela eta, auzoei eta herriei aukera eta gaitasun politiko (botere) handiagoa emanez, auzoak garatzea lortzen dugu.

ehbildu

Donostiako Udaleko Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak auzoen ongizatea sustatzeko bultzatutako auzo mahaien dinamika egokitu eta indartuko dugu; besteak beste, auzo bakoitzerako tekniko-erraztatzaileak ezarriz eta auzoari dagozkion politika publikoetan eragin-eta erabaki-ahalmena handituz. Ekialdeko Barrutiari dagokionez, gabezia handiak erakutsi ditu, baina gertutik gobernatzeko eta eragileen parte hartzea errazteko aukera den heinean, tresna hori eraginkorragoa egiteko, baliabidez hornitzeko eta indartzeko asmoa dugu. Igeldo tokiko erakunde txiki bihurtzeko prozesuan dago sartuta, eta EH Bilduk errespetatu egingo du beti igeldotarren nahia.

Auzo-etxeak bultzatuko ditugu

Gune komunitarioak sustatuko ditugu auzoetan, autogestioan oinarrituak: topagune irekiak, auzoen dinamizatzaileak eta mota guztietako proiektuak garatzeko tresna biziak. Adin guztietako auzotarrek parte hartu ahal izango dute haietan, baina bereziki bi sektore hartuko dira kontuan: gazteak eta hirugarren adina. Oro har, udal azpiegituren, haien erabileren eta espazio komunitarioen azterketa bat egin behar da, gabeziak atzemateko eta hobekuntzak inplementatzeko. Pio XII. plazako Gobernu Zibilaren eraikina berreskuratzeko lan egingo du EH Bilduk, Amara Berrik dituen beharretarako erabiltzeko.

Eragileentzako udal lokalen azterketa

Udal lokalen azterketa egingo dugu, haien erabilera nolakoa den baloratzeko eta aldaketak edo berrikuntzak egin behar ote diren erabakitzeko. Lokal baten eskaera egin duten eragileen zerrenda argitaratuko dugu Udalaren web orrialdean eta zerrendan aldaketak daudenean (zesioak, lagapenak, eta abar) datuak eguneratuko ditugu, edozeinek gardentasunez ikusteko zein den egoera.

Gobernantza feminista

Herritar eta eragileen parte-hartzea erdigunean jarri eta Mugimendu Feministaren eragiletza aitortzen dugu EH Bildun. Horregatik, zenbait gairen inguruko erabaki eta prozesuetan eragile feministen elkarlana bilatuko dugu, lan horretan Emakumeen Etxeari paper garrantzitsua egotziz.

Hirigintzari buruzko partaidetza-tailerrak

Hirigintza tailerrak sustatuko ditugu, herritarrek hirigintza antolamendu arloko proposamenez eztabaida dezaten eta proposamenak aurkez ditzaten; tartean, Hiri Antolamenduaren Plangintza Orokorraren prozesua zabalduz.

2. Memoria historikoa eta elkarbizitza

La Cumbre: memoria demokratikoa sustatzeko gunea

Hain zuzen ere, EH Bilduk Espainiako Gobernuarekin egindako akordioari esker, La Cumbre jauregia berreskuratuko du Donostiako Udalak. Akordioan jasota dagoen bezala, memoria demokratikoa zabaltzeko eta sustatzeko gunea sustatuko dugu La Cumbre jauregian.

Torturatutako donostiarren aitortza

Torturaren errealitatea argitara ekarri du Eusko Jaurlaritzak enkargatu eta, Pako Etxeberria auzitegi medikuaren eta Laura Pego zuzenbide doktorearen zuzendaritzapean, EHUK egin duen ikerketa lanak. Lau milatik gorako kasu baieztatuta, ehunka batzuk donostiarrak dira, eta askoz gehiago torturatuak izan dira Donostiako Antigua, Amara Berri edota Intxaurrendoko kaserna eta komisaldegietan, La Cumbre eraikinean eta abarretan. Tortura pairatu duten eta inolako aitortza eta erreparaziorik jaso ez duten donostiar horien kasuak bildu eta sufritutakoa ezagutaraziko dugu, giza eskubideen errespetuan oinarritutako elkarbizitzari beste zubi bat eskaintzeko.

Erregimen frankistak Donostian egindako krimenen aurkako kereila

Donostiako Udalak kereila jarri du Donostiako Instrukzioko Epaitegian (2023-03-02) erregimen frankistak Udaleko 24 langile eta kargudun publikoren bizitzaren aurka egindako krimenen kontra. Bestalde, 2022ko ekainean, Udalak Jacinto Lara Bonilla abokatuaren esku jarri zuen kasu horiei buruzko informazioa, Argentinako Errepublikako Buenos Aireseko Krimen eta Zentzagarritasun Federaleko 1. Epaitegi Nazionalaren 4591/2010 Kereilaren autoetan aurkez zezan, dagokion moduan. Hori guztia Memoria Historikoaren Kontseilu Sektorialean berariaz sortutako lantaldeak eta hiriko memoria elkarteek urteetan egindako bultzadaren eta lanaren emaitza da.

EH Bilduk kereila horiek bururaino eramateko konpromisoa du, horretarako beharrezkoak diren bitartekoak jarriz eta betiere eragile eta biktima nahiz senideekiko lankidetzan. Era berean, erregimen frankistaren biktima izan ziren gainerako donostiarren kasuak kereilan sartzeko lan egingo dugu, eta hori ezinezkoa balitz, kereila berriak aurkezteko aukera aztertuko genuke. Zeregin horretarako udal bulego publiko bat sortuko dugu, bertan ahozko testigantzak eta dokumentuak bildu ahal izateko, frogak balio historiografiko eta juridikoa izan dezaten. Dokumentazio hori guztia publikoa izango da eta edonork eskuratu ahal izango du Donostiako Udal Artxiboan horretarako sortutako atalean.

Hiriko sinbologia frankista ezabatzea

1936ko uztaileko altxamendu militarren ondorioz sortutako Estatu frankistak hainbat elementu identitario prestatu zituen bere identitate kolektiboa egonkortze aldera: armari ofizialak, kale izenak, erregimenaren babesleei emandako dominak eta sariak, edo alderdi frankistako erorien memoria goresteko monumentu eta hilarriak (Polloeko mausoleo frankista, kasu).

2013ko uztailean hiriko sinbologia frankista erretiratzeko ekimena abian jarri zuen Bilduren Udal Gobernuak justizia soziala eta aitortza sustatzeko asmoz. Donostiako ikur frankista guztiak desagerraraztea helburu, aipatu ekimena bururaino eramateko konpromisoa du EH Bilduk.

Donostiako Memoria Historikoaren Batzordea indartuko dugu

2011-2015 agintaldian, lehen frankismoaren biktimen memoria berreskuratzeko egindako lanari segida emanez, azken frankismoan eta trantsizioan (1960-1981) indarkeriak Donostian eragindako giza eskubideen urraketan inguruko ikerketa-batzorde bat eratuko dugu. Indarkeria mota guztien biktima guztiei aitortza egiteko ondorengo fasea litzateke, beraz. Elkarrekin batera, Donostiako Giza Eskubideen Udal Batzordeak koordinatuko du lan hori. Ondorioak onartuta, kaltetutako pertsonen aitortza egingo da

ehbildu

eta, dagokionean, haien beharrianetan laguntza emateko bideak aztertuko dira. Donostiako Egiaren Mapa osatzeko, “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak” (Eusko Jaurlaritza, 2015) lanean bildutako kasuen abiapuntua hartuko da, zaurituak, ikerketa handiagoa behar duten kasuak eta oraindik jaso gabe direnak gehituz. TOP epaitegi frankistak (1963-1977) bidegabeki epaitu eta kondenatutako donostiarrak ezagutzera eman eta omentzeko ekimen instituzional bat ere egingo dugu. Horrez gain, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen dinamikan, bake prozesuak lantzeko ildo indartzeko konpromisoa du EH Bilduk. Oro har, indarkeria mota guztien biktima guztien aitortza eta memoria historikoa bultzatuko ditugu.

Preso politiko eta iheslari ohiak beren errealitate berrira egokitzeko bitartekoak

Donostiako preso ohiak kartzela osteko errealitatera egoki daitezen bideak eta ekintzak burutzeko protokolo bat adostea proposatuko dugu. Horren bidez, bazterketa ekonomiko egoeran edo arrisku horretan dagoen beste edozein herritarrekin egiten den bezala, beren enplegutasuna hobetuko dugu, lana errazago topa dezaten, eta alokairu sozialeko etxebizitzan onuradun izatea bultzatuko litzateke, besteak beste. Etxeratu nahi duten iheslari prozesuan laguntzeko konpromisoa du EH Bilduk. Oro har, preso eta iheslari politiko guztien etxeratzea eskatu eta horren alde egingo dugu.

Donostiako preso eskubideak eta bergizarteratzea bermatzeko neurriak

Hirian espetxe bat dugula kontuan hartuta, preso eta haien senideek beharrezkoak dituzten laguntzak eta integrazioa bermatzeko bideak jorratuko ditugu. Martutenera etorriko diren preso eta haien familiei aholkularitza eskainiko diegu, horretaz arduratzen diren sektore eta eragileekin elkarlanean.

EH Bilduk desmilitarizazioa bultzatuko du

Donostia demokratikoa eta bageduna egiteko bidean, EH Bilduk desmilitarizazioa bultzatuko du. Konpromiso horri jarraiki, gaur egun Loiolan dagoen Espainiako Armadari ez diogu beste lursailik emango. Espainiako Armadak, Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak Donostiatik alde egin behar dute.

Herri memoria berreskuratzeko lan egingo dugu

Besteak beste, Ategorrietako sarraskiarekin eta Gamazadaren inguruan Donostian izandako hilketekin azken agintaldian egin bezala, herri memoria berreskuratzeko eta duintzeko lan egingo dugu arloko eragileekin batera.

Hileta zibilak egiteko gunea

Pertsonen bizi zikloan garrantzitsuak izan daitezkeen zerbitzu publikoak eskaini behar dituzte instituzioek. EH Bilduk, horregatik, hileta zibilak egiteko gunea publiko bat egokituko du Zorroagan eta beste bat, Polloen. Horren falta du Donostiak, agintaldi honetan pauso bat ere ez da eman, eta bada garaia halako ekipamendu bat izateko.

3. Gazteen partaidetza eta espazioak

Gazteen partaidetza sustatuko dugu

Gazteen parte hartzea bermatzeko eta bultzatzeko programak indartuko ditugu; hala nola, gaur egun auzoetako gazteleketan antolatzen diren "behin betiko foroak". Donostiako Gazteria Kontseilua berrartuko dugu.

Gazteleku, haurtxoko eta haurguneen eskaintza indartu eta zabalduko dugu

Haurguneen alorrean (0-5 urte), haurtxokoenean (5-11) eta gaztelekuenean (11 urtetik gora), atzera pauso handiak eman dira agintaldi honetan, murrizketak eta zerbitzuen irekieran atzerapenak nagusitu direlako. Buelta eman behar zaio egoera horri. Horregatik, gune hauen dinamika indartuko dugu. Zerbitzua uda garaira ere zabaldu beharra dago. Horrez gain, auzoz auzoko aisialdi taldeekin sinergiak bilatu eta lankidetzako proiektuak garatuko ditugu.

Gazteek autogestionatutako proiektuentzako babesa

Herritar gazteek beren beharrak eta proiektuak aurrera eramateko ekimenak martxan jartzea jarrera eredugarria da. Erakunde publikoekiko dependentzia edo mendekotasunik gabeko harremanak eraiki behar dira proiektu hauekin. Partaidetza irekiko eta funtzio komunitarioko proiektu orori bezala, baliabide publikoak eskainiko dizkiegu. 2011-2015 aldian sortutako Txantxarreka gaztetxearen eredia zabaldu beharrekoa da.

Estalitako gune publikoak Donostiako auzo guztietan

Donostiarrek, eta bereziki haur eta gazteek, estalitako gune publikoak behar dituzte beren auzoetan. Estalitako guneak kontsumo gabeko aisialdi eredu bat eta jarduera sozial eta komunitarioak sustatzeko modu bat dira. Donostiako herri eta auzo guztietan, gutxienez, estalitako gune publiko bana izatea bermatu behar du Udalak. Horretarako, gune-estalien batzordea osatuko dugu eragile eta auzo elkarteekin plangintza progresibo bat egiteko, urte bakoitzean gune estali bat gutxienez eraikitzeko. Eta hori egiten den bitartean, hiriko hezkuntza komunitatearekin adostuko da asteburuetan eskoletako gune estaliak irekitzeko aukera. Bestalde, irabazi asmorik gabeko elkarteek ez dute fidantzarik ordaindu beharko espazio publikoa erabiltzearen truke.

II. BERDINTASUNAREN ERRONKA

4. Babes egitura sozialak

4.1. Gizarte eta osasun politikak

Gizarte Ekintza departamentura bideratutako aurrekontua igoko dugu

Gizarte Ekintza departamentura bideratutako diruak pisua galdu du, azken urteotan, Udalaren aurrekontuan; alegia, aurrekontu osoa igo den arren, Gizarte Ekintzara zuzendutakoa ez da neurri berean hazi. EH Bilduren ustez, ordea, udal aurrekontua igotzen bada, neurri berean igo behar du, gutxienez, eremu honetan egindako inbertsioak. Horregatik, Gizarte Ekintza departamentura bideratutako aurrekontua igoko dugu.

Etxegabeentzako Euskal Estrategiaren helburuak Donostian aplikatzeko plan bat garatuko dugu, neurri zehatzekin

Donostiako Udalak sinatutako Etxegabeentzako Euskal Estrategia ez du bete eta gure hiriko kaleetan bizi den pertsona kopurua bikoiztu egin da azken bi urteetan, goranzko joera garbi batekin. Hori dela eta, harrera baliabideak handituko ditugu, alde batetik, etxerik gabekoentzako eguneko zentroa irekita (2016tik irekita egon beharko litzatekeena) eta gauerako harrera plazak handituta. Bestetik, neguko hotzaren protokoloa berrikusiko dugu, gutxienez, azarotik martxora aterpea bermatzen duen zerbitzua eskaintzeko Era berean, kale egoera kasuei aurre egiteko, Udalaren eta hirugarren sektoreko erakundeen arteko koordinazio mahai bat sortuko dugu baliabideak optimizatzeke.

Hornidura energetikoa herritar guztiei bermatzeko neurriak

Beharrezko hornidura energetikoa bermatu ezin duten eta ohiko dirulaguntzetatik (Gizarte Larrialdietarako Laguntzak edo Lan Partekatua Plan) kanpo gelditzen diren herritarren egoerari erantzuna emateko aukerak edo dirulaguntza alternatiboak bilatuko ditu EH Bilduk, inor gutxienerako hornidura energetikorik gabe ez geratzeko.

Esklusio eta pobrezia arriskuari aurre egiteko bitarteko zuzen eta eskuragarriak

Udalak ezin du herritarren “zain” egon, eskusio edo pobrezia arriskuari aurre egiteko ekimenen alorrean. Esaterako, oraindik ere, ezezagutza handia dago halako egoeran jaso daitezkeen dirulaguntzen inguruan (bereziki kezkarria pentsiodunen artean). Horregatik, informazio kanpainak indartuko ditugu eta eskusio eta pobrezia arriskuaren mapa bat egingo dugu, auzoka, pentsiodunei arreta berezia eskainita eta genero ikuspegiaz.

Osasun mentalaren alorrean lan egiten duten eragileei babesa emango diegu

Baliabideak emango dizkiegu osasun mentalaren alorrean doako arreta psikologikoa eskaintzen duten hiriko eragileei. Psikologoaren Elkargoarekin hitzarmen bat sustatuko

ehbildu

dugu, udal gizarte langileek pertsona batek laguntza horren beharra duela eta nahikoa baliabiderik ez duela atzematen dutenean zerbitzu hori jaso ahal izateko.

Osasun zerbitzu publikoak ez murrizteko bitartekaritza lana egingo dugu

Osasun zerbitzu publikoak oinarritzko elementu bat dira donostiarren ongizaterako. Horregatik, ezin da horietan murrizketarik egin, Osakidetzan gertatzen ari den bezala; aitzitik, zerbitzu horiek indartu egin behar dira. Horregatik, anbulategietan, Onkologikoan eta gainerakoetan bitartekaritza lana egingo du EH Bilduk Udal Gobernutik gaur egungo zerbitzuei eusteko eta, areago, horiek hobetzeko eta indartzeko. Lehenasunez Loiola, Alde Zaharra eta Intxaurrendori helduko diegu.

Etxebizitzak hirugarren adinekoen beharretara egokitzeko dirulaguntza ildo

Igogailuak jartzeko dirulaguntzen moduan, beste ildo bat irekiko dugu etxebizitzan bertan hirugarren adinekoen beharren arabera egokitzapenak egiten laguntzeko (sukaldea, komuna, heldulekuak korridoreetan...). Balizko onuradunen errenta kontuan hartuko da lerro honetan eta haren arabera banatuko dira dirulaguntzak.

Larrialdi egoerarako batzordea

Larrialdi egoeren aurrean, ikuspegi integraleko batzordea osatuko dugu. Covid19rena bezalako larrialdirik berriro gertatuko balitz, ikuspegi integrala bermatuko lukeen batzorde bat osatuko genuke Udalean, herritarren premiei ahalik eta azkarren erantzuteko, non hainbat sailak parte hartuko luketen: Gizarte Ekintza, Berdintasuna, Hirigintza, Mugikortasuna eta Sustapena. Gizarte eragileek ere parte hartuko lukete bertan.

Epe luzeko langabeentzako programak bultzatuko ditugu

Langabezia tasa EAEko gainerako hiriburuetan baino txikiagoa den arren, Donostiak ere arazo estrukturalak ditu eremu honetan. Egoera hau bereziki kezagarria da epe luzeko langabeei dagokienez. Lanbiderekin batera, tutorizazio programak eta dirulaguntzak sustatuko ditugu, haien enplegutasuna hobetzeko. Donostiako Sustapen Planean, 2011-2015 agintaldian abian jarritakoan, lehenasuna emango diegu, dirulaguntza lerroetan, kalitatezko enplegua eta epe luzekoa bermatzen duten enpresei, baita 45 urtetik gorako emakume eta epe luzeko langabetuei ere

4.2. Donostia harrera hiria

Donostia harrera hiria

Donostian bizi den edonor eskubide guztien jabe izan dadin lan egingo du Donostiako EH Bilduk. Horretarako, Udalak eskura dituen bitartekoak erabiliko ditu eta indar berezia egingo du egoera zaurgarrian iristen diren migratzaileei eskubide horiek bermatzeko. Erroldatzeko, udal azpiegiturak erabiltzeko eta izapideak egiteko aholkularitza, oinarritzko zerbitzuak (elikadurarena, barne) eta legezko arreta eskainiko zaizkie pertsona horiei guztiei, administrazio egoera irregularrean daudenei barne. Horretarako, udal protokoloa martxan jarriko dugu, Harrera Sarearekin eta hirugarren sektorearekin batera. Udal eskumenetatik at ere defendatuko ditugu Donostian bizi den ooren eskubideak. Bestetik, Donostiako Harrera Sareak hirira iristen diren eta bertan bizi diren jatorri anitzeko

ehbildu

pertsonei emandako babes lagunduko dugu eta martxan jartzen dituzten programak babestuko dira.

Kultur aniztasunaren udal bulegoa indartu eta Donostiako Elkarbizitza plana egingo dugu

Kultur aniztasunaren aurrekontua bikoizteko konpromisoa du EH Bilduk. Kultur aniztasun kudeaketa desagertu egin baita, praktikan, azken bi agintaldietan. Horregatik, 2011-2015eko agintaldian Udalak landutako lan ildo hau berreskuratuko dugu. Agintaldi hartan erroldatu berriei Udalak egiten zizkien harrera protokoloak (harrera ekitaldiak, laguntza-gidak...) ere berreskuratuko ditugu. Kultur Aniztasunaren Udal Kontseilua ere sortuko dugu, non migrazioarekin lotutako gaiek ere pisu handia izan beharko duten. Udal ordezkariez gain, Donostiako eragile sozialek hartuko dute parte bertan; tartean, noski, kultur aniztasuna lantzen duten elkarteek zein migratzaileez osatutakoek. Donostiako Elkarbizitza plana egingo dugu, eragile sozialekin batera, donostiar guztiek, edozein dela ere beren jatorria, eskubide guztiak bermatuta izan ditzaten.

Errolda eskubidea bermatzeko neurriak

Donostian erroldatzeko eskubidea bermatzeko neurriak hartu eta errolda faltsua diruaren truke eskaintzen dituzten egoerak detektatzeko baliabideak jarriko ditugu eta alokairuak iragartzen dituzten web orrien eta plataformen jarraipena egingo dugu, errolda diruaren truke eskaintzen duten iragarkiak detektatzeko eta kasu horien aurrean neurriak hartzeko.

Euskara ikasteko baliabide eta bitartekoak

Euskara izugarrizko palanka da bertako kultura ulertu eta harekin harremanetan jartzeko. Horregatik, euskara C1 mailara arte ikasteko doakotasuna bermatuko dugu Donostiako Udaletik, eta zerbitzu horiekin kontaktuan jarriko ditugu Donostiara iritsi direnak.

Hainbat jatorritako herritarrak harremanetan jartzeko programa auzoz auzo

Donostiako herri eta auzoetan bizi diren hainbat jatorritako herritarren artean elkar ezagutzea, elkar ulertzea eta elkar aitortzea sustatzeko programa abian jarriko du EH Bilduk. Kohesiorako eta elkarbizitzarako oinarri moduan eta xenofobiaren kontra borrokatzeko asmoz. Ongi Etorri egitasmoa, eskola komunitatearen elkarbizitza osasuntsuagoa helburu duena, eta Auzoko dinamika, migratzaile familiak euskara eta euskal kulturara gerturatzen dituena, eredu egokiak izan daitezke eta haiekin sinergiak bilatuko ditugu.

Hizkuntza Aniztasunaren Gunea sortuko dugu

Donostiako Hizkuntza Aniztasunaren Gunea sortuko dugu euskalgintzan eta kultur aniztasunaren esparruan lanean ari diren eragileekin batera: materiala jaso eta partekatzeko, ikastaroak emateko, hizkuntza gutxituen artean aliantzak sortzeko... topagune bat izango da, aipatutako eragile horientzat guztientzat, eta beste esparru batzuetan ari direnentzat, zein alor honetan interesa duen herritar ororentzat.

ehbildu

4.3. Irisgarritasuna

Irisgarritasun unibertsala bermatuko dugu

Aniztasun funtzionala duten pertsonak eskubide eta betebeharren subjektuak dira. Udalak irisgarritasun unibertsala bermatu behar die herritar guztiei bizitzako esparru guztietan. Udala da herritarrekiko instituzio gertukoena eta bertatik eraman behar da irisgarritasuna bermatzeko lidergo politikoa: irisgarria ez den obrarik ez dugu ez sustatuko ez diruz lagunduko. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizitza independenterako programak martxan jarri eta hiria irisgarriago bihurtuko dugu. Irisgarritasun-planak egingo ditugu auzoka edo eremuka, auzo bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz.

Azpitituluak, zeinu hizkuntza eta audio deskribatzaileak ezarriko ditugu

Aniztasun funtzionala duten pertsonen informazioa eskubidea bermatu behar die Donostiako Udalak. Azpitituluak jarri eta zeinu-hizkuntza, eta audio deskribatzaileak eta braillea ezarriko ditugu Udalaren dinamiketan eta hark sortzen dituen ikus-entzunezko materialetan, eta jardunbide horiek orokor bihurtzeko laguntzak emango ditugu.



5. Etxebizitza politikak eta hirigintza

5.1. Alokairua sustatu eta prezioa mugatze bidean

Donostia, etxebizitza alorrean “tenkatutako eremutat” jotzea

EH Bildu eta ERCk adostutako Etxebizitza Legeak -herritarren etxebizitza eskubidea bermatze aldera- ahalbidetzen dituen tresna guztiak erabiliko ditugu. Izan ere, Donostian etxebizitza larrialdian gaude. etxebizitzaren salerosketa eta alokairu prezioen etengabeko hazkundearengatik, eta milaka lagunek beren auzoa eta hiria bera utzi behar izan dute. Ildo horretatik, Donostia osoa tenkatutako eremutat jotzea eskatuko du EH Bilduk, besteak beste, alokairuaren prezioak mugatzeko asmoz.

Etxegintzaren Alokabide programa indartuko dugu

Udal sozietate Etxegintzaren Alokabide programa indartuko dugu, bitarteko gehiago jarrita, langile gehiago bideratuta eta alokairurako etxebizitzaren bilketa hobetuta.

Hutsik dauden 1.000 etxebizitza alokairuaren merkatura bideratuko ditugu

EAEko Etxebizitza Legean aurreikusitako mekanismo guztiak martxan jarriko ditugu, Udalean bertan eta Eusko Jaurlaritzan eraginda. Neurriok Donostian, bi urtean, 1.000 etxebizitza inguru alokairuaren merkaturatu jartzea ahalbidetu beharko lukete (tartean, Elizarenak, bankuenak edo enpresenak). Horretarako, lehenik, Donostian hutsik dauden etxebizitzaren zerrenda egingo dugu (beste hainbat udalerrik egina dute dagoeneko; ez, ordea, Donostiak). Zerrenda horretan oinarrituta, kanona ezarri ahal izango litzateke eta, bi urtez hutsik jarraituz gero, merkaturatzera behartzeko aukera legoke.

Fundazio eta sozietateen etxebizitzak, parke publikora

Udalarekin harremana duten organismo, fundazio eta sozietateen etxebizitzak parke publikora bideratuko ditugu alokairuan, prezioak merkatu pribatuaren mende egon gabe. Zorroagako fundazioak alokatzen dituen etxebizitzak, esaterako, Donostiako Etxegintzatik kudeatuko dira, haren alokairurako irizpide sozialak bermatuz.

5.2. Etxebizitza berriak eraiki, auzo bizigarriak sortu

Urumea Eredua, auzo bizigarriak sortzeko

Urumeako uholdeei aurre egiteko eta inguru horretako garapena diseinatzeko, Bilduk hiru zutabe zituen eredu bat erabili zuen 2011-2015 agintaldian: herritarren beharrak asetzea lehenestea; horretarako, erakundeen arteko elkarlana sustatzea eta, azkenik, soluzioak bizilagunekin batera eraikitzea. Eredu horri jarraitu dio azken urteotan Urumean arrakastaz izandako garapenak. Horregatik, Udalak Urumea Eredua eramango du sustapen guztietara, eta bereziki, degradatuta dauden eta estrategia integrala behar duten auzoguneetara. Auzo bizigarriak dira etxebizitzez gain, lanerako eremuak eta aisialdirako eremuak dituzten auzoak.

Auzo bizigarrietan, 7.000 etxebizitza berri inguru

ehbildu

Datozen bi agintaldietan, Udalak 7.000 bat etxebizitza berriren eraikuntza sustatuko du ondorengo eremuetan:

- Urumeako Erriberan (Loiolako Hiri Lorategia, Txomin Eneko bigarren fasea, Antzita, Portutxo eta Trinketea, Sarroeta, Loiolako kuartelak eta Loiolako Hipika); 3.200 etxebizitza, guztira.
- Ibaetan (Infernuan eta Illarran), 800
- Eason, trenbidea lurperatu ondoren, 280
- Esnabiden, 250 (sustapen hau onartuta dago, eta %100ean publikoa izango da EH Bilduri esker).
- Jolastokietan, 230. Kopuru hau ez bikoizteko apustua egiten dugu. Etxebizitzekin batera, jarduera ekonomikorako guneak bermatu behar dira.
- Bariantearen eraldaketak 2.500 etxebizitza eraikitzeke aukera emango liguke.

Era horretan, eta egoera txarrean dauden etxebizitzak erosita eta zaharberrituta ere, etxebizitza parke publikoa zabaldu eta indartuko genuke.

Sustapen horietan guztietan, Urumea Eredua, lehen aipatutakoa, aplikatuko genuke: herritarren beharrak lehenestea, erakunde arteko lankidetzak eta erabakiak bizilagunekin batera hartzea.

Babes ofizialeko eta alokairurako etxebizitza gehiago

Udalak egindako sustapen guztietan, etxebizitzak alokairuan eskainiko dira. Sustapen pribatuetan, babes ofizialeko etxebizitzak, gutxienez, %50 izango dira (legeak ezarritako %40kotik gora) eta haietan, alokairu soziala lehenetsiko dugu. Lurzorua publikoa denean ehuneko hori maximoetara eramango dugu. Eta egingo ditugun sustapenetan gazteei bideratutako etxebizitza kopuru bat bermatuko dugu.

Auzo zaharrenak birgaitzeko plan bereziak

Plan bereziak abiatuko ditugu auzo zaharretan irisgarritasuna bermatzeko (plazak, bidegorriak, oinezko guneak, argiteria...) eta bizigarritasuna handitzeko (merkataritza, zuzkidurak, zerbitzuak...). Auzo guztietan bizi kalitate maila altuak eskuratzea da helburua. Plan horiek etxebizitzetako energia eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko programak ere jasoko dituzte. Lehentasunez: Morlans zaharra, San Roke (Amara), Luistarrak eta Gaztelu (Intxaurrondo) eta Pikabea eta Eskalantegi (Altza).

5.3. Beste zenbait neurri

Etxe-kaleratzeen aurkako neurriak

Donostiako Udalak bitarteko guztiak jarriko ditu etxe-kaleratzerik egon ez dadin. Halakorik gertatuz gero, hiriko familia bat edo norbanako bat etxetik kaleratu behar dutela

ehbildu

dakienean, haren egoera aztertuko du eta, kale gorrian geldirik ez dadin, behin-behineko etxebizitza aukera bat emango dio.

Etxebizitzaren Udal Behatokia sortuko dugu

Etxebizitzaren inguruko datuen jarraipen iraunkorra zehaztasunez eta gardentasunez egiteko, 2018an, Donostiako Udalbatzak Etxebizitzaren Udal Behatokia sortzea onartu zuen, EH Bilduren ekimenez. Erabakia gauzatzeko inongo pausurik ez da eman, ordea. EH Bilduk konpromisoa du Etxebizitzaren Udal Behatokia martxan jartzeko. Datuen jarraipen iraunkorra egiteaz gain (prezioak, eskaintza, eskaria, baldintzak), maizterren eskubideei buruzko aholkularitza kudeatuko du behatoki honek. Donostian alokairuko etxebizitzak kudeatzeko funts putreak agertzea kezka-iturri bihurtu baita donostiarrentzat.

Horrez gain, urtero etxebizitzaren egoeraren eta politiken inguruko ezohiko udalbatzar bat egingo da, non aztergai izango den behatokiak urtero egin beharko duen diagnostiko-txostena.

Etxebizitza eredu kooperatibo proiektuak gauzatzeko bideak irekiko ditugu

Donostiak etxebizitza eredu kooperatiboa sustatuko du. Horretarako, Udalaren lursail eta eraikinak erabiliko dira etxebizitza kooperatibak aurrera eramateko, propio horretara bideratutako lehiaketen bitartez. Besteak beste, cohousing ereduak sustatuko da, horrelako proiektuak lantzen ari diren kolektibo eta herritarrekin batera.

6. Emakumeen Etxea eta politika feministak

Emakumeen Etxea, Easo kaleko suhiltzaileen egoitza zaharrean

Emakumeen Etxea emakumeak ahalduzko, berdintasun politikak lantzeko eta mugimendu feministaren eta Udalaren arteko lankidetzak bideratzeko funtsezko tresna da. Horregatik, EH Bilduk haren zerbitzuak indartu eta hobetzeko lan egingo du. Ezinbestekoa da, lehenik, kokapen berria, gaur egungoak ez baitu bermatzen zerbitzuak behar bezala ematea. Kokapen hori Emakumeen Etxearekin berarekin adostu dugu: Easo kaleko suhiltzaileen egoitza zaharra. Etxe berriarekin batera, emakumeen etxeko aurrekontua %75 handituko dugu. Azkenik, partekatutako kudeaketa-eredua indartuko dugu, autonomia handiagoa emanez eta erabakitze eta parte hartze tresnak eskainiz.

Berdintasuneko Zuzendaritzaren aurrekontua bikoiztuko dugu

Udalak garatu beharreko berdintasun politikei benetako bultzada emateko, Berdintasuneko Zuzendaritzaren gaur egungo aurrekontua bikoiztu egingo dugu. Besteak beste, hiru lanpostu berri sortuko ditugu zuzendaritza honetan.

Behatoki feminista abian jarriko dugu

Sare feministarekin, adituekin eta gaiarekin zerikusia duten gizarte-eragileekin batera, behatoki feminista abian jarriko dugu. Ildo beretik, EH Bilduk kontziliario politikak

ehbildu

sustatuko ditu bai lan-eremu pribatuan, bai administrazio publikoan. Ikastetxeetan, ekintza positiboak sustatuko dira neska gazteek tradizioz gizezkoak izan diren goi mailako ikasketen eta lanbideen aukera kontuan har dezaten. Era berean, ekintza positiboak sustatuko dira ikastetxeetan eta gazteak ibiltzen diren guneeetan, oso feminizatuta dauden enpleguen balio sinboliko soziala handitzeko, arreta berezia jarrita zaintzan eta garbiketaren arloan. Kultura-ekitaldietan ere genero-ikuspegia txertatuko da eta emakumeek parte hartzen duten konpainien kontratazioa sustatuko da.

Indarkeria matxistari aurre egiteko plana indartuko dugu Donostiako mugimendu feministarekin batera

Udalak erantzun argia eman behar dio indarkeria matxistari: ez da nahikoa, indarkeria kasu bat dagoenean, hura salatu eta pankartaren atzean jartzea. Jarduera zehatzak ere behar dira. Horregatik, hiriko mugimendu feministarekin elkarlan mahaia osatuko du EH Bilduk; auzoetako talde eta aditu feministekin eta bertako entitateekin etengabeko harremana izango dugu auzo bakoitzaren berezitasun eta beharretara egokitutako indarkeriaren eta prebentzioaren aurkako protokoloak egiteko. Festa guztietan, bestalde, mahai tekniko iraunkorra aktibatuko dugu beharrak eta baliabideak ebaluatzen. Indarkeria jasan duten emakumeei prozesu osoan lagundu behar zaie (informazio eskaera, salaketa aurkeztu, epaiketa, laguntza psikologikoa...). Eta salaketarik aurkeztu ez duten emakumeei ere zerbitzua eskaini behar zaie.

Indarkeria matxista prebenitzeko programa, eskoletan eta aisialdi jardueretan

Gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko bidean, EH Bilduk programa bat diseinatu eta Donostiako Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko eskoletara eramango du; baita kirol eta aisialdi arloan ari diren erakunde eta elkarteetara ere. Ildo beretik, sentsibilizazio kanpaina orokorrean gain, indarkeria matxistaren kontrako ekimen zehatzak ere gauzatuko dira haurtxoko eta gazteleketan. Hiriko kirol entitate guztietan sexu jazarpenaren eta abusuaren aurkako gida ezarriko da, klub edo elkarte bakoitzaren kategoria, lehia-maila eta modalitateari egokitu; entrenatzaile, zuzendari, laguntzaile eta abarrentzako genero-indarkeriaren eta prebentzioaren arloko prestakuntza bultzatuko dugu.

Genero trantsizioko prozesua hasi nahi duten pertsonentzako aholkularitza zerbitzua

Donostiako Udalak lagundu egin behar die genero trantsizioan dauden pertsonen. EH Bilduk aholkularitza zerbitzua eskainiko die, eta izena aldatu ahal izango dute udal txarteletan -nahiz eta NAN dokumentuan izen aldaketa hori onartu gabe izan-. Zerbitzu honek bitartekaritza- eta aholkularitza-lanak egingo ditu pertsona hauek zailtasunak sumatzen dituzten eremuetan: ikastetxeak, klubak eta kirol guneak, aisialdia, familiak...

Puntu kritikoak ezabatzeko politika berreskuratuko dugu

Puntu kritikoak ezabatzeko ildo berreskuratuko dugu, azken agintaldi honetan apenas ezer egin du-eta Udal Gobernuak. Mugimendu feministarekin, auzo elkarteekin eta bestelako eragileekin lan egingo dugu puntu kritikoaren gaur egungo mapa hobetzeko eta ezarri beharreko hobekuntzak inplementatzeko. Genero-ikuspegia udal politika guztietan txertatuko du EH Bilduk; baita hirigintza proiektuetan ere, noski, puntu kritikorik ez dagoela bermatzeko, besteak beste.

ehbildu

Kontratazio pleguetan soldata arrakala eta diskriminazioa desagerrarazteko irizpideak eta klausula sozialak ezarriko ditugu

Udal departamentuetako lanpostuen balorazioa berrikusi egingo da generoaren ikuspegitik. Era berean, kontratazio plegu guztiek genero inpaktu-txostena izan beharko dute. Enpresek eta erakunde pribatuek Udalarekin sinatzen dituzten hitzarmenetan, berdintasun-irizpideak bete beharko dituzte; bereziki, berdintasuna sustatu eta bultzatu beharko dute zuzendaritza, kudeaketa, partaidetza, kontratazio eta lan arloetan.

7. Zerga politika eta udal finantzak

Zerga politikan, progresibitatearen aldeko ildoak

Udalaren eskumeneko fiskalitate politikan, Donostiako EH Bilduk progresibitatea defendatuko du. Horrek esan nahi du, lehentasunez, zergetan aplikatu behar direla egokitzapenak. Izan ere, zergek, udal tasek ez bezala, progresibitate irizpideak ezartzeko eta, hartara, gehien dutenek gehiago ordaintzeko aukera ematen dute.

Udal aurrezki sendoa, zerbitzu publiko indartsuak izateko

Aurrezkiak Udalaren ohiko funtzionamendua eta iraunkortasuna bermatzen du eta gainera, inbertsioak ahalbidera ditzake. Hori dela eta, Udalaren egitura ekonomikoan oso gai garrantzitsua da.

8. Udal egitura

Udal eraikinen egoera ona bermatuko dugu

Oro har, udal eraikin guztiak egoera onean egotea bermatuko dugu. Udalarenak diren eta lagatuta dauden eraikinei dagokienez, egoera txarrean daudela atzemanetz gero, Udalarri itzultzeko eskatuko dugu.

Udalaren egituraren berrazterketa

Kudeaketa publiko komunitarioa ardatz hartuta, Udalaren gaur egungo egituraketa aztergai jarriko dugu. Kanpo erakundeak (kirolak, kultura...) langileen, sindikatuen eta udal taldeen gehiengo zabalaren adostasunez, Udalaren egitura zuzenera pasatzeko konpromisoa dugu. Udal brigadak mantendu eta indartzeko konpromisoa du Udal Gobernuak.

Hondartzetako sorosleen lan baldintzak duinduko ditugu eta subrogazioa bermatuko dugu

Urte luzez irauten ari den arazoa konpontzeko, hondartzetako sorosleen lan baldintzak duinduko ditugu eta subrogazioa bermatuko dugu. 2024an proba pilotu bat egingo dugu Zurriolako hondartzan, zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua apiriletik urrira eskainita.

Erosketa publiko etikoaren irizpideak udal kontratazioetan

Banka etikoarekin, energiarekin, iraunkortasun ekologikoarekin, software librearekin, parekidetasunarekin edo giza eskubideekin lotutako erosketa publiko etikoaren irizpideak udal kontratazioetan txertatzeko konpromisoa du EH Bilduk. Klausula sozialak errespetatzen direla ere bermatuko dugu.

Enplegu duina: Udalak egindako kontratazioetan 1.400 €ko gutxienerako soldata

Donostiako Udalak eragile aktiboa izan behar du enplegu duinaren sorreran eta prekaritatearen kontrako borrokan. Lehenik, Udalak berak egindako kontratazioetan, hitzarmenak betetzen direla eta, gutxienez, 1.400 €ko soldata bermatuta; Donostiako EH Bilduk pausoak egingo ditu datorren agintaldian azken helburu hori errealitate izan dadin. Urratsak egingo ditugu zerbitzuen pribatizazioa amaitzeko, egiturazkoak diren lanak langile publikoen bidez betetzeko, hutsik dauden plazak betetzeko eta kontratazio sozialak txertatzeko kontratazio plegu guztietan. Udal departamentu guztietan lan poltsak osatuko ditugu.

Eraikitze lan guztietan lan baldintza duinak bermatzeko protokoloa

Arreta berezia eskainiko diegu Udalaren ardurapeko eraikitze lan guztietan lurraldeko hitzarmenak betetzen direla ziurtatzeari, maiz izaten dira-eta irregulartasunak. Horregatik, Donostiako EH Bilduk adostasunak bilatzeko eta protokolo bat diseinatzeko eta, ikuskapenen bitartez, hitzarmenak betearazteko konpromisoa du.

Udaltzaingo komunitarioa eta genero indarkeriaren kontrako borrokan inplikaturia

Udaltzaingoak herritarren zerbitzura egon behar du eta haien askatasunak defendatu behar ditu. Horregatik, EH Bilduk sustatutako eta 2011-2015 agintaldian sortutako Bitartekaritza eta Ekintza Komunitario Unitatea berreskuratuko dugu. Ildo horretatik, auzoentzako unitate mugikorrek sortuko ditugu, auzo-gatazketan eta auzokideen arteko bizikidetzeta-gatazketan bitartekari gisa jardungo dutenak, salaketak saihesteko aurretiazko urrats gisa. Genero-indarkeriaren alorrean lanean ari den pertsonala handituko dugu eta genero-biktimak artatzeko, berriazko eta etengabeko prestakuntza eskainiko diegu udaltzaingoei.

Udaltzaingoaren autonomia defendatuko dugu

Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Udalaren arteko segurtasun hitzarmena berrikusiko dugu, Udaltzaingoaren autonomiaren defentsan. Izan ere, zentralizazio prozesu nabaria dago eskumenen alorrean Donostiako Udaltzaingoaren kaltetan (hitzarmenean, esaterako, delitu larriak ikertzeko eskumena Udaltzaingoiari kendu eta Ertzaintzari ematen zaio; alde horretatik, delitu larriak ikertzeko unitatea berreskuratuko dugu). Era berean, Udaltzaingorako sarbidea Udalak berak egindako hautaketa prozesuen bitartez izatea defendatuko dugu (Lan Eskaintza Publikoak edo lan poltsa propioak). Ordezkarri sindikalekin batera, hutsik dauden lanpostuak betetzeko plangintza egingo dugu.

Udaltzaintzako prestakuntza plana, ikuspegi barne-hartzailea sustatzeko

Udaltzaintzako prestakuntza plan bat negoziatuko dugu, non genero-ikuspegia nahitaezkoa eta lehentasunezkoa izango den. Indarkeria matxistari ez ezik, jatorri, arraza, sexualitate, genero-identitate eta abarregatik delituei ere arreta berezia eskainiko zaie.

ehbildu

Logika berari jarraiki, herritarren eskubide eta askatasunen defentsan, Mozal Legea Donostian izaten ari den eragina aztertu eta eragin hori ezabatzeko neurriak hartuko ditugu.

Donostiako suhiltzaileen parkea eta Gipuzkoako sarea bateratzea bultzatuko dugu

Donostiako eta Gipuzkoako parkeak bateratzeko plana sustatuko dugu, betiere, zerbitzuaren ikuspegi integral eta funtzionaltik. Prozesu horrek zerbitzua modernizatzea ekarriko du, eta gaur egungo baliabide materialak eta giza baliabideak optimizatzea. Eskema berriaren ondorio nagusia esku-hartzearen eraginkortasuna izango da.

9. Ekialdean bizi eta lan

Donostian desoreka handiak daude, eta agerikoak dira Altzan, Bidebietan eta Intxaurren, adierazle sozioekonomikoen erakusten dutenez. Horregatik, buru-belarri lan egingo dugu desoreka horiek gainditzeko, eta hobekien daudenekiko oreka lehenbailehen lortzeko. Horretarako, ekitatean oinarritutako politikak sustatzen jarraituko dugu Donostiako ekialdean, gure auzoen bizi kalitatea handitzeko, eta auzokideen bizitzak erosoago egiteko, Altzan, Bidebietan eta Intxaurren lan egin, bizi eta disfrutatu nahi dugulako.



III. ERRONKA EKO-SOZIALA

10. Energia politikak

Energia berriztagarriak sustatzeko politika

Energia berriztagarrien sorkuntza-bitartekoen demokratizazioa posible da, energia prezio justu batean eskuratzeko, eta energia-trantsizio jasagarria lortzeko. Horregatik, energiaren sektorea demokratizatzeko bidean, energia berriztagarrien produkzio eta biltegitatze azpiegiturak kontrol publikoa ziurtatzen duten jabetza eredu publiko-komunitarioan oinarrituta garatuko ditugu.

Tokiko Energia Komunitateak sustatuko ditugu

Autokontsumoa eta kudeaketa komunitarioa sustatu behar da, eta, horretarako, besteak beste, trantsizio energetikorako aholkularitzarako udal bulegoa sortuko dugu, donostiarrei aholkularitza eta laguntza emateko. Udal bulego horren bidez, Tokiko Energia Komunitateak (TEK) sortzeko proiektuak garatuko ditugu, horretarako bideragarriak diren espazio publikoetan instalazio fotovoltaikoak edo eguzki energia termikoak instalatuz. Energia biltegitatze-instalazio berrietarako egitasmo komunitarioak eta publiko-pribatuak bultzatuko ditugu. Espazio publikoez gain, etxe eta bizilagun-komunitate pribatuetan ere energia berriztagarriak sortzeko instalazio txikiak jartzeko laguntzak emango ditugu.

Energia merkaturatzeko udal enpresa

Krisi energetikoari aurre egiteko merkatu elektriko handizkarien aurrean, udal merkaturatzaile propioa sortuko dugu. Bizi dugun egoeran, ezinbestekoa dugu burujabetza energetikoa eta horren aurrean EH Bilduk energia merkaturatzeko udal enpresa bat sortuko du, bai Udalarari berari bai haren mendeko azpiegitura eta zerbitzu guztiei zein donostiarrei (bereziki pobrezia energetikoan bizi diren herritarrei) % 100 energia berriztagarria eskaintzeko, zerbitzu publiko baten bermearen aterpean eta edozein planteamendu merkantilistatik at.

Udal eraikinetan energiaren kontsumo eraginkor bat egiten dela bermatuko dugu

Oro har, udal eraikinetan energia-kontsumo eraginkorra eta arduratsua egiten dela ziurtatzeko lan egingo du Donostiako EH Bilduk.

11. Politika klimatikoak

11.1. Ondare naturala

Eraztun berdea

Donostiako gune berdeak hiriaren kanpoaldeko eremu natural eta erdi-naturelez osatutako multzoa da: Ulia, Auditz Akular, Lau Haizeta, Antondegi, Miramon, Belartza, Arratzain, Mendizorrotz eta Igeldo. Gune berde horiek babesteko aukera bakarra Eraztun

ehbildu

Berdea osatzea da, eta horretarako eremu horiek deskalifikatu egingo ditu EH Bilduk. Europako hiri aurreratuenetan bezala, Eraztun Berdea osatzeak eta babesteak, besteak beste, biodibertsitatea kontserbatzea eta lur degradatuak berreskuratzea ekarriko du; herritarrentzako aisialdi-eremuak sortzea eta nekazaritza eremuak babestea ahalbidetuko du; hiriaren eraikigarritasuna dagoeneko artifisializatuta dauden eremuetara mugatuko da, eta kutsaduraren ondorioak arintzea eta beste arrisku natural batzuk saihestea ere ekarriko du.

Urumea garbia

Urumea ibaia birnaturalizatzeko konpromisoa dugu, erreferentziazko gune natural bilakatuta. Hiriko erreka eta errekaak, ahal den neurrian, leheneratzeko eta bertako biodibertsitatea berreskuratzeke konpromisoa ere badu EH Bilduk.

Naturguneetako eta kaleetako zuhaitzia babesteko araudi berria egingo dugu

Urbanizatutako eremuetan zein berdeguneetan dauden zuhaitzen babesa eta kudeaketa arautuko dugu, kanopiak sortuz eta mikroklima erregulatzen duten itzal-eremu zabalak sortuz. Horrez gain, zuhaitzi eta banako ale bereziak babestu eta kontserbatuko ditugu; hirigintza proiektuetan, mozketaren gainetik birlandaketa lehenetsiko dugu, eta kaleko zuhaitziari dagokionez, mantentze merkeko, tamaina eta hazkunde egokiko eta klima aldaketara egokitutako espezieak hautatuko ditugu. Landaketak egiterakoan, gainera, hegaztiak elikatu eta erakarriko dituzten zuhaitzak lehenetsiko dira. Bestalde, hirian bizi den faunari ura eskainiko dioten guneak sortuko ditugu.

11.2. Eraginkortasuna

Kutsadura akustikoaren aurkako neurriak

Hirigintzan zarata zehar-lerro nagusietakoa bilakatuko dugu. Hainbat auzotan arazo bihurtu baita kutsadura akustikoa: Parte Zaharra, Loiolako Erribera, Errondo pasealekua, Intxaurren, Herrera... Besteak beste, gaueko aisialdiarekin lotutako arauak berraztertu eta trenbide eta errepide alboetan pantailak ezarriko ditugu, gune jakin batzuetan trenbideak estaltzea sustatuko dugu (Errondon Euskotrenen trenbidea eta Intxaurren Renferena, esaterako), autoen eta motorren zarata kontrolatuko dugu, kontratazio publikoan zarata gutxiagoko makinak erabilera sustatuko dugu... Argi kutsadura murrizteko neurriak ere hartuko ditugu.

Banaketa jasangarria sustatuko dugu

Zamalanen eta hiri barruko garraioaren eredia eraldatzeko plana egingo dugu. Salgaiak banatzeko kutsakorrak ez diren ibilgailuen erabilera sustatzeko, besteak beste. Azken miliaren banaketa sustatuko dugu. Hurbileko zentro logistikoak jarriko ditugu eta haietatik abiatuko dira hirian egin beharreko banaketa guztiak.

Sozialki errentagarriak eta ingurumen aldetik iraunkorrak diren azpiegiturak

Trantsizio ekologikoarekiko koherentziaz eta hiri iraunkorra egiteko bidean, EH Bilduk sozialki errentagarriak eta ingurumen aldetik iraunkorrak diren azpiegiturak sustatu eta babestuko ditu.

11.3. Beste zenbait neurri

Donostiako natur ondarea ezagutzeko programak indartuko ditugu

Donostiako ingurumen ondarea ezagutzeko hiriko parkeetan (Ulian, Aieten eta Cristina-Enea/Gladys Enea parkean, esaterako) haur, gazte eta familiei zuzenduta egiten diren programak indartu egingo ditu EH Bilduk. Donostiako elkarteekin eta eskolekin batera, hiriko landaredia eta bizidunak ezagutzeko jarduerak bultzatuko ditugu.

% 60tik gorako birziklapen tasa datorren agintaldian

Datorren agintaldian % 60tik gorako birziklatze tasa lortzeko asmoz (% 42koa da gaur egun), errefusaren edukiontzia txip-duna ezarriko dugu. Organikoaren bilketa selektiboa bultzatzeko, etxe eta auzo konpostak auzo guztietara eramango ditugu eta eskola konposta, ikastetxe guztietara. Eta organikoaren edukiontzia txip-dunaren erabilera ere sustatuko dugu, hobaria % 50era igoz. Donostiako Udalak prebentzio ekimenak bultzatzeko bitartekoak ere jarriko ditu: ekitaldi publikoetan hondakinen sorrera murrizteko; eremu publikoetan eta, bereziki, hondakin asko sortzen diren leku eta egoeretan hondakinak bereizteko ontziak jartzeko; edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko; erosketetan, harategi zein arraindegietan, tuperraren erabilera sustatzeko eta abarrerako.

12. Mugikortasuna

12. 1. Oinezkoei eta bizikletei lehentasuna

Super-etxadiak eta emisio baxuko eremuak

Argi dago emisio baxuko eremuak ezarri behar ditugula gure hirian. Erdigunean eta auzoetan. Izan ere, erdigunean ez ezik, auzoetan ere baretu behar da trafikoa, auzo atseginagoak eta bizigarriagoak egiteko. Horretarako ezinbestekoa da hirigintzan esku hartzea eta espazio publikoa berrantolatzea.

Bizikleta: bidegorri sare hobea eta aparkaleku seguruak

Bidegorri sarea hobetzea eta bizikletentzako aparkaleku seguruak sortzea lehentasuna da EH Bildurentzat. Izan ere, bidegorri sareak baditu hobetu edo konpondu beharrean dauden zenbait eremu. Gainera, gaur egungo bidegorri sarea handituko dugu eta bide berriak sortuko ditugu: Larratxo eta Txaparrene lotu; Txingurri eremua berregokitu; Mirakruz eta Ategorrietako bidegorria; Nafarroako hiribidea Ategorrietarekin lotu; ospitaleetara eta Miramonera igotzekoa... Horrez gain, industria guneeetara lanera bizikletaz joateko bideak egokituko ditugu. Eta aparkaleku seguruak ere sortuko ditugu (besteak beste, saihezbidearen eraldaketan liberatutako espazioan). Dbizi indartzen jarraituko dugu.

Bizikleta sustatzeko bestelako laguntzak

“Etxebizitza bakoitzean gutxienez bizikleta bat” dirulaguntza programa ezartzeko aukera aztertuko dugu. Konponketarako bonoak ezarri eta bizikletei bigarren bizitza emateko aukerak aztertuko ditugu.

ehbildu

Oinezko guneak

Oinezkoentzat egokitutako guneak zabaldu eta kale atseginagoak sortuko ditugu. Zirkulazioa lasaitzeko abiadura-mapa egingo dugu eta autoentzako %30 km/h abiadura muga duten guneak zabalduko ditugu, erdiguneaz gain baita auzoetan ere.

Mugikortasun bertikala

Donostiarren ia erdia % 10eko maldak dituzten guneetan bizi da. Eta %45 50 urtetik gorakoa da. Irisgarritasuna bermatzeko politikak indartu behar dira; besteak beste, auzo barneko edo auzoen arteko konexioak hobetzeko, bai eta etxera iristeko oztopo arkitektonikoak ezabatze ere. Hau bereziki nabarmena da hiriarren ekialdean: Altza, Ulla, Egia edo Intxaurren. Zentzu horretan, datorren agintaldian mugikortasun bertikala bermatzeko inbertsioak handitu eta proiektuak azkartu behar dira, igogailuen bitartez eta, aldi berean, oinezkoentzako ibilbide irisgarriak bermatuz: Añorga Txiki, San Antonio, Herrera-Larratxo, Oleta, Zubiaurre-Zarategi, Zarategi-Mons...

12.2. Hiriko aparkalekuen eraldaketa estrategia

Lur azpiko parkingen eraldaketa bultzatuko dugu, erdiguneko trafikoa arintzeko eta espazioa auzotarren mesedetan jartzeko

Donostiara sartzen den garraibidearen %60,6 autoz egiten da; gainera, horietako askok erdiguneko aparkalekuak dituzte helmuga. Parking horietan (Bulebar, Okendo, Kontxa, Artzain Ona, San Martin eta Katalunia Plaza) errotaziozko ia 3.000 plaza daude, eta egunerokoa autoen joan etorri handia sortzen dute (3 milioi urtean). Horrek arazoa sortzen du mugikortasunean, baita emisioetan ere. Arazoa konpontzeko, aparkalekuen erabileraren eraldaketa bultzatuko dugu, errotaziozko plazak murrizteko eta espazioa egoiliarren, bizikleten, eta zamalan eta logistikaren mesedetan jartzeko. Horretarako, eta Dbusek hiriko mugikortasun operadore integral gisa duen eginkizunaren haritik, Dbusek berak egin lezake kudeaketa publikoa. Plangintza bat egingo dugu, poliki-poliki, ondorengo hiru agintaldietan parking guztien emakida berreskuratu eta beste erabilera batzuk emateko. Lehenik, proiektu pilotu bat abian jarriko du EH Bilduk, datorren agintaldian, Bulebarrean.

Disuasio aparkalekuak egingo ditugu

Hirian autoen sarrera murriztu nahi badugu, beharrezkoa da disuasio-aparkalekuak martxan jartzea. Igaran, Aritzetan (Dbuseko zerbitzuarekin lotuz) edo ospitaleetan (hiru edo lau solairuko parking bat; doakoa edo prezio murriztuarekin, garraio publikoa erabiltzen duenarentzat) disuasio aparkalekuak egingo ditugu. GI-20 saihebidetaren eraldaketaren ondoren, disuasio aparkalekuak ere jarriko genituzke liberatutako espazioan.

12. 3. Garraio publikoa indartu

Industria guneetarako garraio publikoa indartuko dugu

Hiriko nahiz auzo edo eremu bakoitzeko errealitatera egokitutako garraio publiko sare eraginkorra antolatuko dugu; langileek gehien erabiltzen dituzten lineetan goizeko lehen

orduko eta azken orduko zerbitzuak indartuz, esaterako. Eguneroko lanerako auto pribatuaren erabilera murriztu nahi bada, gainera, ezinbestekoa da garraio publikoa industria guneei begira ere indartzea. Mugikortasun ikuspegitik, Ibaeta-Igarako industria gunea anabasa da gaur egun. Bertan zein Zuatzun eta 27. poligonoan Dbus zerbitzuen maiztasunak hobetuko ditugu.

Garraio publikoaren deskarbonizazioa eta elektrifikazioa

Mugikortasuna karbonizazioaz gabetzea eta elektrifikazioa bultzatzea da helburuetako bat, eta horretarako, gure hiriko autobusen elektrifikazioarekin jarraituko dugu. Hain zuzen, DSS Klima 2050 planean ezarritako helburuetako bat da Dbus autobus flotaren elektrifikazioa eta udal mugikortasun parke garbia lortzea 2030. urterako.

Dbusen lineen berrantolaketa egingo dugu eta linea berriak sortuko ditugu

Garraio publiko iraunkor eta eraginkorra sustatze bidean, Bus Rapid Transit (BRT) edo "autobus azkar" lineak ezarriko ditugu Donostian. Alegia, autobus elektrikoak, lehentasun semaforikoa dutenak, edozein atetatik sartu eta ateratzeko aukera ematen dutenak, bost minutu inguruko maiztasunaz... 28. linea BRT moduan egokitu, eta 14. eta 40.a batuta, Bidebieta-Igarakoa sortuko dugu irizpide berberarekin: autobusen lehentasuna bermatuko da ibilbide osoan. GI-20 saihebiderearen eraldaketa erabiliko dugu linea berri bat sortzeko. Bestalde, auzo eta eremu jakin batzuetako irisgarritasun arazoak konponduko dituzten lineak ezarriko ditugu. Esaterako, ekialdeko auzoak (Atza-Intxaurrondo) lotuko dituen linea berri bat eta Intxaurrondo barrenean zerbitzua emango duena.

Donostialdeko tren sarea hobetzeko lan egingo dugu

Adif eta Euskotren sareak elkar lotuko lituzkeen Loiolako Erriberako geltokia behingoz eraikitzeko lan egingo du Donostiako EH Bilduk. Baita Oletan Renferen trenbidepeko tunela irigarri egiteko ere. EH Bildurentzat donostiarrek erabiltzen dituzten tren zerbitzuak eta hiriaren benetako beharrei erantzuten dieten proiektuak dira lehentasuna (esaterako, Euskotrenen Altza-Galtzaraborda lurpeko adarra). Oro har, hiriko garraio publikoko operadoreen eta administrazio publikoen arteko koordinazioa hobetzeko lan egin dugu.

Tarifak merketzea eta progresibitatea lantzea, garraio publikoa indartzeko gakoetako bat Garraio publikoa eskuragarriago egiteko, tarifak merketzen eta haietan progresibitatea ezartzen jarraituko dugu. 12 urtetik beherakoentzat, ikasleentzat eta langabeentzat Dbus doan izatea sustatuko dugu, baita gainerakoentzako hobariak handitzea eta behar gehien dutenek gutxiago ordaintzea ere. Zentzu horretan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan, tarifen jaitiera eskatuko dugu, baita 4. Erabilera tartearen sorrera defendatu ere.

12.4. GI-20 saihebiderearen eraldaketa

GI-20 saihebiderearen erabilera ia erdira jaitsi da bigarren gerrikoa sortu zenetik. Hori eta klima larrialdiarekin dugun erronka kontuan hartuta, Donostiako EH Bilduk saihebiderearen eraldaketa bultzatuko du. Proiektu honen bidez, hiribide atseginago bilakatu nahi dugu saihebiderea, autoentzako espazioaren heren bat murriztuta, bizikleta eta oinezkoei lekua emanda eta liberatutako guneak bestelako erabileretara bideratuta.

ehbildu

EH Bilduk bultzatutako eraldaketarekin, 60 hektarea inguru liberatuko lirateke herritarrentzat: oinezko eta bizikletentzako bide berriak irekiko lirateke, saihasbide inguruko auzuneak konektatuko lituzketen autobus linea eta geltoki berriak sortuko lirateke, artifizializatutako eremuak beste erabilera batzuetarako berreskuratzeko eta gerriko berdea lotzeko aukera legoke, disuasio aparkalekuak ere sortuko lirateke...

Zehatz-mehatz, EH Bilduk sustatutako eraldaketarekin, GI-20 berriak honako honetarako aukera emango luke:

- Bizikletentzako 6 aparkaleku seguru
- 11 km bidegorri eta 15 km oinezkoentzat
- 23 hektarea berde
- 6.000 m² eguzki plaka
- 10 autobus geltoki berri
- 2.500 etxebizitza berri eraikitzeko eta lanpostuak sortzeko aukera
- Auzo-azpiegitura berriak
- 3 disuasio aparkaleku: Añorga, Intxaurren, Altza
- 24 tona CO₂ gutxiago egunean.



13. Ekonomia lokala eta zirkularra

13.1. Ikerkuntza + Berrikuntza + Garapena

Zientziari hirian dagokion pisua bermatzeko lan egingo dugu

Zientzia eta teknologia Udalaren apustu estrategiko eta Donostiako eta auzoetako motor ekonomiko bilakatzeko lan egingo du EH Bilduk, gaur egungo garaira egokituta: digitalizazioari eta larrialdi klimatikoari aurre egingo dieten ikerkuntzari eta garapenari lehentasunez helduko diegu. Ikerkuntza, berrikuntza eta garapenean Donostiak badu ekosistema garrantzitsua (5.000 langile ingururekin) eta oinarri ona da, helburu estrategiko honetan, urratsak egiteko.

Tokiko industria sendotzeko politikak bultzatuko ditugu

Donostiarren gogobetetzea eta ongizatea bermatzeko ezinbestekoa den industria ekoizpena sustatu behar da, larrialdi egoeretara birmoldatzeko gai izango dena, ibilbide laburragoak eta seguruagoak dituen produkzioari lehentasuna emanez. Horregatik, gaurko eta biharko erronkei erantzuneko dien industria indartu, haren iraunkortasuna bermatu, eta areago, industria berria erakartzeko ildo politikoa berri bat irekiko dugu. Kanpoko esperientziak erakartzeaz gain, bertako industria sortu eta sustatzea lehenesten dugu, Talent house ere norabide horretan kokatuz.

Artifizializatutako lursailak industria, zientzia eta garapenerako

Lursail industrial nahikoa badu Donostiak gaur egun: helburua da, beraz, lursail horien egokitasuna eta erakargarratasuna handitzea, eta sinergiak eta eraginkortasuna bilatzea. Ildo horretatik, eta kontuan hartuz ondorengo urteetan Eskuzaitzeta (Gipuzkoako industria eremurik handiena) funtzionamenduan hasiko dela, ezinbestekoa da Donostiako parke eta poligonoen berrazterketa orokor bat. Gainera, Europako beste hiri batzuetan egiten ari den moduan, birgaitu beharra duten eremuetan jarduera ekonomiko garbia kokatzearen aldeko apustua egiten dugu. Lehentasunez, Txingurri, Martutene (27. poligonoa) eta Añorga. Auzuneetara industria eta jarduera ekonomikoa eramango dugu, gune horiek biziberritzeko.

Smart teknologiaren sustapena

Smart teknologiaren bidez (garapen teknologikoa, ekonomia zirkularra eta pertsonen ongizatea bateratzen dituen kontzeptua) sortzen diren aukera ekonomikoak lideratuko ditu EH Bilduk, kudeaketa Udalaren beraren esku utzita, eredu publiko komunitarioa oinarritzat hartuta.

13.2. Tokiko merkataritza eta lehen sektorea

Tokiko merkataritza babesteko neurriak

Tokian tokiko ardatz komertzialak indartzeko berehalakotasunez hainbat arlotan neurriak hartuko ditugu. Dendatic programa (Donostia Sustapena-Donostia UP! 2019 Plana) eguneratu, zabaldu eta indartuko dugu; zerbitzuen digitalizazioa eta IKT-ak inplementatzeko aholkularitza, prestakuntza eta laguntza programa abian jarriko dugu.

ehbildu

Berrazterketa orokor bat egingo dugu tasa, zerga eta hobarien inguruan. Sektoreko eragileen artean elkartegintza eta asoziazionismoa bultzatuko dugu. Horrez gain, EH Bilduk Donostian merkataritza gunehandi gehiagorik ez jartzeko konpromiso garbia du.

Tokiko eta gertuko kontsumoa sustatzeko neurriak

Kontsumo-ohiturak lurralderatzeko eta kontsumitzaileen fidelizaziorako estrategiak eta laguntzak sortuko ditugu: merkataritza bonoak, tokiko merkataritzak donostiarren ongizaterako eta auzo-bizitzarako dituen onurak balioan jartzeko kanpainak, auzo edo herriko merkataritza eskaintzaren berri emateko berariazko bitartekoak sortzeko laguntzak, tokiko merkataritzan online erosketak eta etxez etxeko zerbitzuak indartzeko neurriak (gaur egun martxan dauden proiektuak egokitu eta berriak sortuta). Gipuzkoako Bazkondeak egin bezala, auzo-merkatariaren Enpresen Direktorio bat sortuko dugu eta bertan agertuko dira etxez etxeko zerbitzuaren bidez salmenta-jarduerak eskaintzen duten auzoko establezimenduak.

Etxez etxeko zerbitzua laguntzeko ekimenak

Gertukoa, jasangarria eta tokiko merkataritza sustatuko duen etxez etxeko zerbitzua indartzeko, baliabide publiko gehiago bideratuko ditugu; banaketa-plataforma publiko bat sortuko dugu edota sektoreko eragileek propio abiatutako zerbitzuak sustatuko ditugu. Aldi berean, Donostiako Sustapenaren bitartez, kooperatibagintza sustatzeko programak martxan jarriko ditugu, eredu honetan oinarritutako eta tokiko merkataritza nahiz ostalaritza txikiaren mesedetara egongo diren etxez etxeko banaketa zerbitzu enpresa berriak sortzen laguntzeko, eta Glovo eta antzekoei alternatiba erreal eta iraunkorra proposatzeko.

Lehen sektorea errotu eta sustatzeko estrategia integrala

Tokiko ekoizpen jasangarri eta osasungarriaren eskaria eta eskaintza handitzeko, ezinbestekoa da nekazaritzako elikagaien sektoreko eragile guztien (ekoizle, eraldatzaile, banatzaile, kontsumitzaile) arteko lankidetzaren indartzea, eta, horretarako, Guztiona nekazaritzako elikagaien klusterra (Donostia Sustapena) funtsezkoa da. EH Bilduk lankidetzaren hori indartuko du. Era berean, hirian nekazaritza sektorea finkatzen laguntzeko, Donostia Sustapenak martxan dituen hiri proiektuei bultzada berezia emango diegu; hala nola, Donostia Kilometro 0 edo Donostia Urban Lur proiektuari.

EH Bilduk elikadura burujabetza du helburu, eta lehen sektorea funtsezkoa da zentzu horretan. Horregatik, nekazaritzatik haratago, sektorea bere osotasunean hartuko duen hiri estrategia integrala jarriko dugu abian: lur publiko berriak eskuragarri jartzea; tokiko elikagaien eraldaketarako gunehandi publikoak; tokiko produktuak merkaturatzea eta kontsumitzea errazteko neurriak; azoka berriak antolatzea bitartekoak; kontsumo taldeen jarduna erraztea... Horrez gain, Donostian arrantza sektorearen jarduna berreskuratzeko lan egingo dugu.

13.3. Ekintzailletza soziala

Ekonomia eta ekintzailletza soziala sustatzeko politika

Ekonomia Sozialeko Programa sortuko dugu, Donostia Sustapenaren bitartez. Administrazioa eta mugimendu kooperatiboaren arteko lankidetzaren espazio bat izango da, eta helburu nagusia ekonomia sozial eta kooperatiboa balioan jartzea eta ekintzailletza kooperatiboa sustatzeko nahiz enpresen kooperatibizazioa laguntzeko zerbitzuak eskaintzea izango da. Proiektu profesionalak eta ekimen sozio-ekonomikoak abian jartzen laguntzeko programak eskainiko ditugu, hala nola KoopFabrika programa (OlatuKoop sarea, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegia eta EHUko Gizarte Ekonomia Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua dira proiektu honen sustatzaile nagusiak). Bestalde, Donostia Sustapenak ematen dituen laguntza ekonomikoetan, ekonomia sozial eta kooperatiboari zuzendutako dirulaguntza lerro sendoa irekiko dugu.

Herri kooperatibak sustatzeko politika

IKO Igeldoko Kooperatiba eredu hartuta, Donostiako auzoetan horrelako proiektuak abiatzen lagunduko dugu. Behar sozial ezberdinak kooperazioan oinarrituta asetzeko proiektuak dira, tokiko egoizle txikiak prezio justuan saltzeko merkatu lokala eskura jartzen dutenak. Gainera, herri kooperatibak bestelako proiektu komunitarioak dinamizatu eta garatzeko gune izan daitezke.

14. Turismoa gobernatzeko neurriak

Turismoaren karga ahalmena ezarriko dugu

Bai hiri osoarentzat, bai auzo bakoitzarentzat. Turismoa oso jardura lokalizatua da eta ez du eragin bera lurralde osoan. Donostian ere errealitate desberdinak ditugu, eta beharrezkoa da auzoak turistifikazio mailaren arabera bereiziko dituen berariazko analisi tresna bat diseinatzea eta aplikatzea. Horretarako, adierazle georreferentziatuen indize bat sortuko dugu: "Donostiako auzoen turistifikazio indizea". Indize horrek auzo bakoitzaren saturazio maila edo karga ahalmena neurtzeko balioko du, baina, batez ere, egoiliarren kalteberatasun edo erresilientzia maila neurtzeko eta horren arabera, erabakiak hartzeko. Hiriaren karga-ahalmena eta auzoen turistifikazio indizea ezartzen diren bitartean, bertan behera utziko dira turismo ostatu berriak eraikitzeko eta irekitzeko lizentziak.

Parte Zahar osoa, Erdialdea, Gros, Egia eta Antigua "eremu ase" izendatuko ditugu

Lizentzien suspentsio partzial eta tenporaletik harago, turistifikazioak gehien saturatutako auzoak direnez, Parte Zahar osoa (Zabalgunea eta kaia barne), Erdialdea, Gros, Egia eta Antigua turismoari lotutako jardura ekonomikoz gainezka dauden eremu izendatuko ditugu, horretarako behar diren ordenantzak aldatuz, eta deklarazioak ekarriko dituen baldintzak betearazteko beharrezko neurriak hartuz. Era berean, aldameneko auzoetan arreta berezia jarriko dugu, karga turistikoaren bilakaera neurtuz eta, hala badagokio, eremu saturatura pasatzeko. Gainera, eremu ase izendapenarekin batera, auzo horietan lantaldeak eratuko ditugu, auzokideekin eta tokiko eragileekin batera, erabakiak hartzeko.

Donostiarren harreman-espazioak babestuko ditugu

Hiri edo auzo bat bizigarria izateko, espazio publikoaren kalitatea lehenetsi behar da. Horretarako, ezinbestekoa da hainbat eremutan, Parte Zaharrean kasu, tour turistikoak arautzea, besteak beste, turista-taldeen dimentsioa (kide kopurua) eta jarduera (ordutegia eta ibilbidea) kontrolatuz. Erregulazioak, aldi berean, turismo-gidarien lan-baldintzen edo turistak jasotzen duen informazioaren kalitatea bermatuko du, Donostia Turismoari tour-operatzaileen jarraipen zuzena egitea ahalbidetuko baitio.

Gentrifikazio komertzialaren aurrean, ekonomia dibertsifikazioa

Turismoak eragin berezia duen eremu horietan, besteak beste, turismoari bideratutako sektore ekonomiko zabala dago, auzotarren beharretara egokitutako denda eta zerbitzuen kaltetan. Horregatik, premiazkoa da gentrifikazio komertzialaren aurrean neurriak hartzea, bai auzo berrietara hedatu ez dadin, bai eragindako auzoetan dagoeneko izan dituen ondorioak lehengoratzeko. Bestalde, hiriko hainbat eremu (Parte Zaharra, Erdialdea edo Zurriola pasealekua) “turista olde handiko gune” izendatzen dituen Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2022ko urtarrilaren 31ko ebazpenak tokiko merkataritzan izan duen eragina aztertuko dugu, eta emaitzen arabera, berau bertan behera utzi.

Pisu turistikoak: lehen solairuaren araua Donostia osoan

Lehen solairuaren araua berreskuratuko dugu hiri osoan: lehen solairutik gora ezin izango da inon pisu turistikorik jarri. Eta horrez gain, hotelen eta ostaluen baldintza berberak eskatuko zaizkie turismora bideratutako etxebizitzetara: soinua, irisgarritasuna, segurtasuna. Aldi berean, hotelen ezarpena mugatuko dugu turismo jardueraz gainezka dauden hiriko auzoetan: Parte Zahar osoa, Erdialdea, Gros, Egia eta Antigua.

Turismoaren itzulera sozial eta ekonomikoa bermatzeko neurriak

Turismoari lotutako jarduera ekonomikoetatik eratorritako irabaziak modu justuan banatu behar dira. Horretarako, lehenik eta behin, turismoak eragiten dituen sektoreetako lanpostuen kalitatea eta langileek lan baldintza egokiak ziurtatu behar dira (batez ere, ostalaritza eta alojamendu turistikoetara dagozkien lan hitzarmenak eguneratu eta egokituz). Bestalde, tasa turistikoaren ezarpen progresiboaren alde egiten dugu, lortutakoa donostiarren ongizatea babestu eta egunerokoa hobetzera zuzentzeko.

IV. ZAINTZAREN ERRONKA

15. Zaintzaileen zaintza

Zaintza zerbitzuen eta haien langileen baldintzen hobekuntza

Zaintzaren Kontseilu Sektoriala sortuko dugu eta Donostiako zaintzen mapa egingo dugu, Donostiako eragileekin batera: etxez etxeko laguntza zerbitzua (SAD), kontraturik gabe zaintza lanetan dabiltzan langileak (migratzaileak, haietako asko), barneko langileak, Emakumeen Etxea eta abar. Sektorearen azterketa egingo dugu hiru helbururekin: zerbitzu hauek balioan jartzea, langileen baldintzak hobetzea (gehien-gehienak, emakumeak) eta zerbitzuen kalitatea handitu eta eskaintza zabaltzea (paseoan ibiltzeko laguntza, esaterako).

Bestalde, dependentziaren legeak araututako dirulaguntzekin zaintzaileak kontratatu diren etxeetan, Udalak etxeko zaintzaileen lan baldintzen jarraipena egingo du, prekaritate egoerak saihesteko eta zaintzak duintzeko. Horretarako, interlokuzio kanal bat sortuko dugu SOS Arrazakeriaren, Donostiako Emakumeen Etxearen eta udal gizarte zerbitzuen artean, hiriko etxeetan lan egiten duten pertsonen egoera zein den ezagutzeko (kasu gehienetan emakume migratuak) eta zaurgarritasun kasuen aurrean arreta koordinatua eskaintzeko.

Udal kontratazioan, zaintza zerbitzuetako langileen baldintzak hobetuko ditugu

Udalak baditu, bere ardurapean, eta azpikontratazioen bitartez kudeatuta, erabat feminizatutako sektoreak; horien artean, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (SAD) edota udal eraikinen garbiketa. Sektoreko prekarizazio handia kontuan hartuta, Udala eragile aktibo eta eredu izan behar da, lan baldintza duinak bermatuz (1.400€ baino gutxiagoko soldatarik ez udal kontratazioetan).

Zaintza sektorearen garapena

Pertsonen zaintzaren arloa sektore ekonomiko gisa ere protagonismoa hartzera dator, demografia joerak kontuan hartuta, eta beraz, garapen iraunkorrerako oinarri izan behar da. Diagnostiko bat egin eta programa berezituak eskainiko ditugu, prestakuntza hobetzeko, profesionalizazioa indartzeko eta alor honetako ikerkuntza sustatzeko.

V. ERRONKA KULTURALA

16. Kultur bilguneen sarea

16.1. Kultur azpiegiturak

Kultur azpiegiturak auzoetan indartuko ditugu

Kulturarako sarbide unibertsalaren bidean, kultur eskaintza herritar sektore orori gerturatzeko konpromisoa dugu, prezioak egokituz eta komunikazio ildo espezifikoekin. Era berean, kultur azpiegitarik ez duten auzoetan (Bidebietan, Añorgan, Txominen...) baliabide horiek lehenbailehen eskaintzeko urratsak egingo ditugu, eta lehentasunak ezartzeko, ingurukoetarako gaur egungo helmena eta irizpide sozioekonomiko eta soziokulturalak kontuan hartuko ditugu. Amara Berriko kultur etxearen egoera ere berraztertu behar da: Gobernu Zibilaren eraikina berreskuratuko balitz -eta horretarako lan egingo du EH Bilduk-, bertan kokatzeko aukera legoke.

Azpiegiturak sortzaile eta eragileen beharretara egokituko ditugu eta erabilera berriei atek zabalduko dizkiegu

Gazteen, emakumeen, hirugarren adinekoen, sortzaile berrien eta auzotarren behar espezifikoekin azterketak eta entzute ariketak bideratuko ditugu, azpiegitura publikoen funtzioak zabaltzeko eta birdefinitzeko. Besteak beste, espazioen erabilerarako prozesuak erraztuz, araudiak malgutuz, burokrazia murriztuz, eta beharrezko baliabideez hornituz.

16.2. Kultur ekimen eta eragileak

Kultur eragileek erabaki guneetan parte hartzeko mekanismoak sortuko ditugu

Udalaren eragin eremuko jaialdi, azpiegitura, egitasmo eta politiken erabaki guneetan kultur eragileen parte hartzea errazteko neurriak hartuko ditugu. Horretarako eragileen mahaiak sustatuko dira hiri mailan, auzo mailan, espazioen kudeaketaren inguruan eta kultur ekimenen inguruan. Oro har, kultur jardueren deszentralizazioa bultzatuko dugu.

Sorkuntza eta hezkuntza harremanean jartzen dituzten egitasmoen bide emango diegu

Sortzaileei haien proiektuak aurrera eramateko aukerak eskaini eta aldi berean herritarrek sortze prozesu horiek ezagutu ahal izateko balioko duten programa publikoak bultzatuko ditugu. Hala nola, sorkuntza-erresidentziak auzoetan ikastetxeekin harremanean; konpainia edo sortzaile-talde egoiliarrek ekipamendu publikoetan; kulturara sarbidea izateko zailtasuna dutenentzako eskaintza...

ehbildu

Kultur arloko ekimenak pertsonen garapenak, gizarte kohesioak eta bizikidetzaren beharrek gidatuko dituzte; ez interes ekonomiko eta komertzialek

Kultur eskaintza ez da jarduera publizitario-komertzialen mendeko elementu bihurtuko. Ekitaldi eta jarduera ezohikoetan bereziki ikuskatuko da lan baldintza eta baldintza tekniko guztiak betetzea. Udalak antolatutako edo bera parte den ekitaldi handiak (Jazzaldia, Zinemaldia, Euskal Jaiak...) auzoetara eramango ditugu, kultur eskaintza arranditsuen erakarpen indarra baliatzeko auzo horien pizgarritzat. Era berean, zirkuitu txikiari oihartzun eta erraztasun handiagoak emango dizkiogu.

16.3. Jai herrikoiak

Jai herrikoi eta parte-hartzaileen antolakuntza bultzatuko dugu

Donostiako jai eredu herrikoi eta parte hartzailea oinarri duten festak bultzatu eta sustatuko ditu EH Bilduk, haien beharrak asetzeko lan eginez (baimenak, laguntza ekonomiko edo materialak, aseguruaren tramitazioa, azpiegiturak,...) eta auzoetako jai batzordeetako edo jaietako antolatzaileekin interlokuzioa eraginez.

Jai parekideak eta euskaldunak sustatuko ditugu

Jai eredu parekidea bultzatu eta diskriminazio egoerak saihestuko ditugu, Udalak antolatzen dituen une eta gune instituzionaletan zein herritarrek antolatutako ekimenetan. Jai euskaldunak ere bultzatuko ditugu: Donostiako hizkuntz aniztasuna kontuan hartuz, herritarrek euskarara modu inklusiboan erakartzen saiatuko gara. Festa jardun bakoitzean euskarak lehentasuna eta espazio propioa izango du.

Festen eta kultur jardueren araudia berrikusiko dugu eta baimenak erraztuko ditugu

Gaur egun indarrean diren arauak, baimenak eta prozedurak jai antolatzaileekin batera berrikusiko ditu EH Bilduk, bizikidetzara kontuan hartuta, baina festa giroa sustatze aldera, eta jai mota guztiak ere aintzat hartuta. Alor honetako dirulaguntza politika ere berraztertuko dugu.

Zezenketarik gabeko Donostia

2011-2015 agintaldian zezenketarik gabeko hiria izan zen Donostia. EH Bilduk egoera horretara itzultzea defendatuko du. Donostiarrek gai honen inguruan iritzia eman dezaten aukera guztiak urratuko ditu EH Bilduk Alkatetzatik.

16.4. Lankidetzara

Egonkortutako aurrekontuaren %0,7 garapenerako lankidetzara

Udal aurrekontuaren %0,7 lankidetzara solidario eta eraginkorra garatzeko bideratuko dugu. Besteak beste, herritarren artean ikuspegi kritikoa sustatzera bideratuko da aurrekontu hori, Iparr-Hegoa logikatik Globala-Tokian Tokikoa estrategiara igaroz, eta

beste eragile batzuk lankidetzaz dinamizetara ekarriz. Ez da lagunduko irabazi asmoa duten erakundeen inolako proiekturik.

Ikuspegi internazionalistaz, beste eragile batzuk lankidetzaz eremura erakartzea

Lankidetzaz alorrean, lehenetsuz zein eragilerekin lan egingo duen zehaztu behar du Donostiako Udalak: unibertsitateak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, gizarte mugimenduak... Lankidetzaz Kontseiluak dinamizetara berreskuratu eta benetako eztabaidagune izan behar du. Estaturik gabeko herriekiko lankidetzaz ere indartuko dugu.

16.5. Donostiako ondare urbanoa

Donostiako ondare urbanistikoa defendatuko dugu

Azken agintaldian atzerapauso nabarmena eman da Donostiako ondare urbanistiko eta artistikoaren babesean. Bellas Artesekin gertatutakoa da adibiderik esanguratsuenak. Donostiako Udalak defendatu egin behar du hiriko ondare urbanistikoa. Ondare hori lehen mailako kultur altxorra eta hiriaren identitatearen funtsezko parte da, eta horregatik, bereziki larria da gutxi batzuen espekulazio helburuen mesedetan hura galtzea. Bestalde, Ondarearen Aholku Batzorde plural eta inpartziala osatuko dugu, adituez. Kontseiluak txostenak egin beharko ditu, nahitaez, eraikin babestuetan esku hartzeko espedienteak heltzen direnenean edo haien babes maila aldatzea proposatzen denean.

17. Kirola

Anoeta, kirol hiria

Anoeta eremua kirol hiri bihurtzeko proiektua bultzatuko du Donostiako EH Bilduk, gainerako erakundeekin aliantzak bilatuta, honako oinarri hauekin: Belodromoa, Atano III. frontoia, Paco Yoldi, Txuri-Urdin, Gasca eta Carmelo Balda (haietako batzuek berritu beharra dute); Ilunbe kirola eta ikuskizunak egiteko erabilera aniztun areto bihurtzea; Anoetako estadio txikia behingoz berritzea, kirolarientzako aterpetxe bat egitea, eta ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikorako zentro bat bultzatzea. Helburua: azpiegiturak berrituta eta sinergiak bilatuta, mota guztietako txapelketak antolatzea eta Gipuzkoako federazioen entrenamendu eta kontzentrazioak egiteko aukera ematea, baita Donostiako kirolari gazteentzat errendimendu-ibilbideak sortzea ere, kirol elkarte eta erakundeekin batera. Motor ekonomiko moduan funtzionatuko luke, lanpostuak sortuko lirateke eta kudeaketa publikoa litzateke.

Emakumeen kirolaren sustapena

2011-2015ean, Berdintasunaren Plan Estrategikoa onartu zen kirol alorrean, emakumeen kirol praktika sustatzeko asmoz. Lehenetsun hori berreskuratuko du EH Bilduk: ordutegien eta instalazioen azterketa, emakumeen kirolari emandako dirulaguntzei segimendua egin, praktika sustatzeko ekimen zehatzak... Lilatona indartuko dugu antolatzaileekin eta hiriko klubak laguntzarekin (ordu aldaketa aztertuko dugu); Donostiako emakume kirolarien memoria berreskuratuko dugu; kirol arloan emandako

ehbildu

laguntza ekonomiko guztiek aldeko genero txostena izango dute eta programa baten bidez, emakumeek teknikari, entrenatzaile, epaile, fisioterapeuta, psikologo, nutrizionista eta zuzendaritza lanetan parte hartzea sustatuko dugu.

Donostiako kirol ekipamenduen erabilera zabalduko dugu: akordioa eskolekin

Udalarenak ez ezik, beste kirol azpiegitura batzuk ere badira Donostian: eskoletakoak eta kirol elkartenak. Horregatik, EH Bilduk Udalaren, kirol elkarten eta eskolen arteko hitzarmenak sustatuko ditu donostiarrek ekipamendu gehiago izan ditzaten eskura eta etxetik gertuago. Bereziki interesgarria da eskoletako kirol instalazioak erabiltzeko aukera zenbait kiroletan: saskibaloia, eskubaloia, futbola, pilota, gimnasia... Erabilera hori auzotarrek egin dezaketenarekin uztartu beharra dago. Bestalde, elkarteekiko, kirol erakundeekiko eta ikastetxeekiko lankidetzak sustatuko da, kirol herri-jarduerak bultzatu eta sustatzeko: herri olinpiadak, kuadrillen edo familien arteko txapelketak... Eta mistoak eta inklusiboak direnei lehentasuna emanez.

Eskola Kirolaren eskaintza hobetuko dugu

Kirol praktika sustatzeko modu bikaina da Eskola Kirola: 5.000 haurrek parte hartzen dute urtero ekimen honetan. Programa hau indartuko dugu, Foru Aldundiarekin eta ikastetxeekin batera; hezitzaileen etengabeko prestakuntza bermatu eta beste kirol batzuk ezagutzeko aukera emanda, besteak beste. Eskola adineko tokiko lehiaketak bultzatuko ditugu: auzoen artean, ikastetxeen artean, lagun-taldean...

Ezohiko kirol ekitaldietan klubetako kideek parte hartzeko bidea jarriko dugu

Hiriko kirol-klubetako kideek osatutako lan-poltsa bat sortuko dugu, ezohiko kirol ekitaldiak antolatzeko eta kudeatzeko erabiliko dena, sortzen dituzten onura ekonomikoek eragin handiagoa izan dezaten Donostiako pertsonen eta klubien artean. Kirol-leihatila bakarra ere sortuko dugu, aholkularitza eta kudeaketa zerbitzu publikoa, arautu gabeko jarduerak (garagardo azoka, txosnak, txapelketak, lasterketak...) antolatu nahi dituzten klub eta kirol elkarteentzat; zerbitzu honek egin beharreko kudeaketa guztiak zentralizatu, erraztu eta arinduko ditu.

Auzoetan, aire zabaleko kirol instalazioak

Donostiako Udalak aire zabalean, kalean, ariketa fisikoa egitea sustatu behar du. Horregatik, eta batik bat, gazteenei begira, kirol kantxak, skate parkeak eta antzekoak sustatuko ditu EH Bilduk auzoetan.

Udal kirol instalazioak kudeatzeko emakida gehiago ez diegu emango irabazi-asmoa duten enpresa pribatuei

Aspalditik Udalaren zenbait kirol azpiegitura Donostiako kirol elkarteek kudeatzen dituzte: irabazi asmorik gabeko elkarteek. Joera hori hautsi egin da, ordea, irabazi-asmoa duten enpresa pribatuak ere hasi dira-eta azpiegitura horiek kudeatzen (Zuhaiztiko kiroldegia, adibidez). EH Bilduk lan egingo du halakorik gerta ez dadin.

Inoren egoera ekonomikoa kirola egiteko muga izan ez dadin, baldintzak erraztuko dira

ehbildu

48.000 donostiarrek dute Kirol Txartela. Datua ona da. Baina hala ere, erabiltzaile kopuruak langa jo du eta gaur egungo lan egoera prekarioen ondorioa izan daiteke. Kirol Txartela sozialaren eta ohikoen artean, beste Kirol Txartel mota bat sortzea aztertuko dugu errenta kontuan hartuta. Familia-errentaren arabera kuota-tarteak ezartzeko aukera aztertuko dugu, nahi duen orok Kirol Txartela izan dezan.

Euskal pilota sustatzeko plana

2011-2015 agintaldian Donostian euskal pilota sustatzeko plana onartu zen, Donostia Kirolaren, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren, ikastetxeen eta kirol elkarten arteko lankidetzan oinarritua. Plan horri segida emango dio Donostiako EH Bilduk. Oro har, euskal pilotan, Donostiaren erreferentzialtasuna berreskuratzeko lan egingo dugu. Donostiako eliteko pilota lehiaketa bultzatuko dugu, gizonezkoetan zein emakumezkoetan.

18. Hezkuntza ekosistema kooperatiboak

Donostiako eskola curriculuma egingo dugu

Donostiaren errealitatea eta historia kontuan hartuta, bertako curriculuma osatuko du EH Bilduk hiriko eskolekin eta eragileekin batera. Euskarri propioak sortuko ditugu gure hiria ezagutzeko (ipuinak, jokoak, fitxa didaktikoak, bideoak...). Oro har, Donostia ikasleei zabalik dagoen hiria izateko lan egingo du EH Bilduk; besteak beste, Donostiako eskaintza historiko, kultural, zientifiko eta soziala eskuragarri jarrita eta hiriko espazioetarako sarbidea, izan publikoa nahiz pribatua, erraztuta. Euskal curriculumaren alde lan egingo dugu, oro har.

Donostiako hezkuntza mahaia sortuko dugu

Donostiako Udalaren eta hiriko eskola komunitatearen elkarlana sustatuko duen mahai iraunkorra sortuko dugu. Mahai honek hiriko eskolen eta komunitatearen beharrak ezagutzea eta irtenbideak bilatzea izango du helburu. Hala nola, familia zaurgarrienei laguntza ematea, baliabide materialak eta teknologikoak ziurtatzea, eskoletako azpiegiturak mantentzea, ikasleen osasun eta gizarteratze arazoak lantzea... Hezkuntza ratioak ere berraztertu beharko lirarteke bertan (eta horretan oinarrituta azpiegitura berriak behar direla ondorioztatzen bada, haiek Eusko Jaurlaritzan eskatzeko bidea egingo dugu).

Francisco Escudero kontserbatorioaren espazio eta irisgarritasun arazoari soluzioa

Kontserbatorioak irisgarritasun eta espazio falta arazo nabarmenak ditu. EH Bilduk gainerako erakundeekin batera, eta bertako langile eta erabiltzaileen iritzia kontuan hartuta, behin betiko konponbidea bilatuko dio arazo honi.

19. Donostia euskaraz

Euskararen normalizazioari bideratutako dirua handituko dugu, aurrekontu osoaren %2ra iristeko

Donostia euskararen hiria dela esan ohi dugu. Horrek eskatzen du, hitzetatik haratago, Donostiako Udalak euskara sustatzeko eta normalizazioan laguntzeko eragile aktiboa izan behar duela eta konpromisoa sendoa hartu behar duela, aurrekontuetan ere ausardiaz jokatuta. Horregatik, aurrekontu osoaren % 2 euskararen sustapenera eta normalizaziora bideratzeko pausoak emango ditu EH Bilduk: udal langileak eta, oro har, herritarrak euskaldundu; euskarazko komunikabideetan publizitate kopurua nabarmen handitu eta dirulaguntzekin lagundu; euskalgintzan ari diren elkarteak eta haien dinamikak bultzatu; hiriaren paisaia euskaldundu; kirol eta aisialdi munduan euskararen normalizazioa indartzeko dinamikak; haur eta gazteentzako ekintzak...

C1 mailara arte, euskara ikastea, doan

Gure kasuan, Eusko Jaurlaritzari dagokio helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen doakotasuna. Hori lortu bitartean, Donostiako Udalak bermatu behar du, bere baliabide ekonomikoez, euskara C1 mailara arte doan ikasteko donostiar guztien eskubidea.

Auzoetako euskara batzordeak babestuko ditugu

Auzo askotan martxan dauden euskara batzordeek auzoko eragile eta euskaltzaleak biltzen dituzte eta funtsezko lana egiten dute gertutasunetik euskararen erabilera handitzeko; beraiek izan behar dute beren auzorako helburuak eta lan-ildoak finkatzen dituztenak eta arlo horretan lidergoa eramaten dutenak. Lan horrek instituzioen aitortza eta babes berezi du. Euskara batzorderik ez dagoen auzoetan haren sorrerarako baldintzak erraztuko dira.

Euskararen erabilerarako udal irizpideak betearaziko ditugu

Bereziki zaindu beharrekoak dira Udalaren zerbitzuak eta haren eskumeneko hizkuntza paisaia osoa, baita Udalaren partaidetza duten jarduerak ere. Jarraipen estua egin beharra dago, eta zoritxarrez, nolabaiteko erlaxazioa gertatu da azken agintaldian. Horregatik, konpromiso hori indartuko du EH Bilduk. Kaleko iruditegian (erakusleihoak, panelak eta abar) euskararen presentzia bermatu eta bultzatuko dugu. Era berean, itzulpen zerbitzua egongo da udal ekitaldi guztietan, eta auzo elkarteen eskura ere jarriko da itzulpen maletina.

Udala euskalduntzeko plangintzaren atal berria: Udalbatzaren euskalduntzea

Akordioa politikoa bilatuko dugu udalbatzarretan euskararen erabilera areagotzeko. Udalbatzak eredu izan behar du-eta alor honetan ere. Horretarako baliabideak bideratuko ditugu (udalbatzarrak jarraitzen dituzten herritarrentzako bat-bateko itzulpen zerbitzua, besteak beste). Oro har, udal jardunean euskararen presentzia areagotzeko konpromisoa du EH Bilduk.

ehbildu

Euskal kultura eta euskarazko sorkuntza sistemaren beharrei erantzutea lehentasuna izango da

Donostia euskal kulturaren sorgune, plaza eta erakusleihu nagusietakoa da eta izan behar du. Ikuspegi horretatik, lehentasuna emango zaie euskal kultur sistema garaikide eta bizia elikatzen duten ekimenei. Hiriko programazio orotan euskal sortzaileen parte hartzea erraztuko da, bereziki nazioarteko proiektzioa duten jaialdietan; hiriaren azpiegiturak euskal eragileei erraztuko zaizkie.

